Oharrak: Auzoko baserri historikoetakoa. *Etxebarria* eta *Etxebarria-Beotegi* izenez ezagutzen zen XIX. mendera arte; *Ibiñagaetxebarria* ere esan zaio noizbait:

“*Caseria Echevarria, que después, unido al apellido de Domingo de Beotegui la titulan hoy Echevarria Veotegui (...); se titula tambien Ybinaga Echevarria*”⁹⁵¹

XIX. mendetik aurrera, *Jesusene* izena nagusitu da eta hortik datorkio gaurko *Josune*.

XIX. mendera arte, Beotegi eta Amunategi-Beotegi familiakoen jabetzakoa izan da.

Ahozkoa: “**3osuné**” 095, 101, 148, 150

Idatzizkoa:

1682	<i>Echevarria muculu, cas.</i>	BUA AL. 1680-1710 31b-34b
1701	<i>San Juan de Beotegui, casa de</i>	BUA AL. 1680-1710 235b-237b
1702	<i>San Juan de Beotegui, casa de</i>	BUA AL. 1680-1710 275-281b
1703	<i>San Juan de Beotegui, casa de</i>	BUA AL. 1680-1710 320-325b
1704	<i>Echevarria, cas.</i>	BFA. Fg.
1704	<i>San Juan de Beotegui, casa de</i>	BUA AL. 1680-1710 345-348b
1745-46	<i>Echebarria, cas.</i>	BFA. Fg.
1763-1846	<i>Beotegui, cas.</i>	BUA 39/1. Enajen. y conc. 1
1791	<i>Echevarri Beotegui, cas.</i>	BEHA A-078/4-1 1-1b
1791	<i>Echevarria Beotegui, Ybinaga</i>	Echevarria BFA. Bust 177/2 8
1792	<i>Echevarria, Ybinaga Echevarria, cas.</i>	BFA. Bust 172/2
1796	<i>Beotegui, cas.</i>	BFA. Fg.
1804	<i>Beotegui, cas.</i>	BEHA A-700/10-2
1825	<i>Echevarri Beotegui, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1847-74	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 5
1850	<i>Echevarri Beotegui, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1854	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 946. Ced. vecinales
1859	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 888/18. Mozos
1860	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 5. Rotul. de calles
1881	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 929
1901	<i>Echevarri, cas.</i>	BAHP.N.BL 8570 633b
1910	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 1032. Fincas rústicas
1910-1923	<i>Jesusena, cas.</i>	BUA 866;1435;404. Riqu. rúst.
1922	<i>Jesusena, cas.</i>	BFA. E. KZ. C/2
1934	<i>Jesusena, cas.</i>	BFA. E. KZ. C/76
1938	<i>Jesusene, cas.</i>	BUA 1685. Fich. sanit.

951 1791. BFA. Bust. 177/2; 8.

Kaballogane (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-4)

Oharrak: **Kurtzieta** baserriaren behealdean.Ahozkoa: ***Kaballogáne*** 106, 149**Kakallosolo**

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-4)

Ohar ling.: Leku honen izena jabearen familiaren ezizenetik dator. Ik. Hiriguneko **Kakallo** (etxeak).Oharrak: **Irukurtzieta** baserriaren ekialdean.Ahozkoa: ***“Kakállosolò”*** 101
“Kakallosólo” 102, 105**Kantarape** (baserria)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (B-1)

Ohar ling.: Baserri honek izan dituen izenen artean *Milicianuena* (jabearen ezizenetik datorrena), *Kantarape* eta *Romacenuena* daude. Gaur egun, baserri honi erreferentzia egitean *Kantarape* izena da erabiltzen dena, ‘kantera’ hitzaren bokal asimilaziotik. Erabilerarekin, bokal arteko dardarkari bakuna galdu egin da (-r- > Ø), eta ondoko bokalek bat egin dute:*Kantarape* > *Kantape*

Kantarape baserria, 1979.

Oharrak: XIX. mendearen erdian Ignacio Lakak eraikia. Gaur jausita dago. 1860. urtera arte, **Mañu** auzoari zegokion etxe hau; urte hartan, **Errematzane** eta **Mundekatxune** (gaur desagertua) baserriekin batera, **San Migel** auzora bildu zen.

Ahozkoa: **“Kantarápe”** 097, 098, 101, 103, 108, 136, 150
 “Kantápe” 131, 144

Idatzizkoa:

1845	<i>Milicianuena, cas.</i>	<i>BEHA A-78/4-1</i>
1847-74	<i>Canterape, cas.</i>	<i>BUA 5</i>
1847-74	<i>Miliciano, cas.</i>	<i>BUA 5</i>
1850	<i>Milicianuena, cas.</i>	<i>BEHA A-78/4-1</i>
1854	<i>Canterape, cas.</i>	<i>BUA 946. Ced. vecinales</i>
1859	<i>Canterape, cas.</i>	<i>BUA 888/18. Mozos</i>
1860	<i>Cantera, cas.</i>	<i>BUA 5. Rotul. de calles</i>
1860	<i>Canterape, cas.</i>	<i>BUA 5. Rotul. de calles</i>
1881	<i>Canterape, cas.</i>	<i>BUA 929</i>
1918	<i>Canterape ó Romacenena, cas.</i>	<i>GJE fk:2169 L28;211</i>
1920	<i>Canterape ó Romacenena, cas.</i>	<i>GJE fk:2157 L28;186</i>
1924	<i>Guruzuaga ó Geruzuaga, cas.</i>	<i>GJE fk:1074 L15;30</i>
1938	<i>Canterape, cas.</i>	<i>BUA 1685. Fich. sanit.</i>
1945	<i>Canterape-Romacenena, cas.</i>	<i>GJE fk:1215 L17;67</i>

Kantarapeko iturria

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-1)

Oharrak: **Errematzane** eta **Kantarape** baserrien artetik, **Urubi** errekarara jaisten den ura.

Ahozkoa: **“Kantaràpeko itxurrizé”** 101

Karabiondo (saila)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Ohar ling.: Ahozkoa hobetsi da fitxa bururako, idatzizko aldaerak berriak direlako. Ik. Demiku auzoko **Karabia**.

Oharrak: **Iturrandiaga** gainean, **Ermetxioko** baserrietarako bidean.

Ahozkoa: **“Karabióndo”** 102

Idatzizkoa:

1910	<i>Carabi, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Garabiondo, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Kerizazpi (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **Intxausti** baserriaren hegoaldean.

Ahozkoa: **“Kerisáspize”** 108

Kurtzieta (baserria)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-4)

Ohar ling.: Baserri honen izena parajearen izenetik dator. Bokalez amaitutako oinarrirei gertatzen zaien moduan, *-eta* leku-atzizkia lotzean *-eta* > *-ta* bilaka daiteke:

Kurtzieta > *Kurtzita*

Oharrak: XIX. mendearen amaieran edo XX.aren hasieran Aurrekoetxea familiakoek eraikia. 1904an Gaubeka-Rekalde familiakoek erostean izena aldatu zioten. Hala ere, **Iru-kurtzieta** baserriaren inguruan egonik, *Kurtzieta* izenez ezagutzen da.

Ahozkoa:	“Gauekarrekálde”	109
	“Kurtzieta”	101
	“Kurtzita”	095, 101, 102, 103, 109
	“Kurtzita barrizé”	150

Idatzizkoa:

1902	<i>Curcieta, cas.</i>	<i>BAHP.N.BL 8572 127</i>
1910-1923	<i>Crusieta</i>	<i>BUA 866;1435;404. Riqu. rúst.</i>
1920	<i>Gaubeca-Recalde</i>	<i>GJE fk:1201 L17;13</i>
1922	<i>Gaubeca-Recalde</i>	<i>BFA. E. KZ. C/2</i>
1934	<i>Gaubeca-Recalde</i>	<i>BFA. E. KZ. C/76</i>
1944	<i>Gaubeca-Recalde</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Landa (sola)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Ohar ling.: Ahozko aldaera hobetsi da idatzizkoa berria delako.

Oharrak: **Josune** baserritik **Ibiñagarako** bidearen iparraldea.

Ahozkoa:	“Lánda”	097, 098
----------	----------------	----------

Idatzizkoa:

1903	<i>Landachu, heredad</i>	<i>GJE fk:2117 L28;91</i>
1910	<i>Landaca, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>

Larrezarre (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: ‘Larre’ + ‘zabal’ eta ‘Larre’ + ‘za(h)ar’. Idatziz jasotakoak XX. mendekoak direnez, eta ez dagoenez behar beste dokumentatuta, ahoz jasotakoari jarraitu zaio. Aldaera honen osagai biek, kontsonantez amaitutako izenek bezala, -e paragogikoa erakusten dute. Nabarmena da, aldaera honek elkartu diren hitz bien artean txertatuta duen sudurkaria:

‘Larre’ + ‘zarre’ > *Larrenzarre*

Oharrak: **Ermetxiogoiko** baserriaren hegoaldean, **Almikara** doan andabidearen behetik.

Ahozkoa:	“Larrènsarré”	101
----------	----------------------	-----

Idatzizkoa:

1910	<i>Larrazabal, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Larrazar, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Larruzeta (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Oharrak: **Goikogorta** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:

1910	<i>Larruceta, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Larruceta, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>

Latxibai (gaztainadia)

Kokapena: Zehaztu gabe.

Oharrak: **Ibiñaga** baserriari lotutako gaztainadia.

Idatzizkoa:

1717 *Lachibay, castañal* BFA. K. 3561/10 132b**Makatzeta** (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Oharrak: **Itubizkarbarri** baserriaren hegoaldean.Ahozkoa: “**Makátzata**” 095

Idatzizkoa:

1896 *Macaceta, heredad* GJE fk:1735 L24;34
1896 *Macaceta, heredad* BAH.P.N.BL 7553 1548
1944 *Macazeta, heredad* BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5**Malleta** (saila)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Oharrak: **Ermetxio** baserrien iparraldeko isurialdean, harmailak daude Bilborako errepideraino. Jaitsiera bi hauetako bat **Torre** baserriaren ingurutik doa eta, bestea, **Ermetxio-goikoren** paretik. Maila hauetatik hartzen du izena.Ahozkoa: “**Málleta**” 101, 102, 109

Idatzizkoa:

1944 *Malleta, heredad* BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5**Masolo** (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (B-2)

Oharrak: **Itubizkarbarri** baserriaren hegoaldean.Ahozkoa: “**Masólo**” 095“**Masotzé**” 101

Idatzizkoa:

1910 *Matisolo, heredad* BUA 866. Fincas rústicas**Mastiarte** (basoa)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: ‘Mahats’ + -di + ‘arte’. Lehenengo osagaia den ‘*mastei*’ hitzak latinetik datorren -*di* atzizkia erakusten du: -*tio* > -*toi* > -*ti* (Ameztoi), -*tiu* > -*tui* > -*ti* (Bustindui) (Gorostiaga. 1958. “De Onomastica Vasca”. *Euskera I*; 57). Leku-izen honetan -*di* atzizkia -*tia* > -*tai* > -*tei* > -*ti* jaso da.Mastaiarte > *Masteiarte* > MastiarteOharrak: **Ibiñaga** baserriaren hego-ekialdean, **Basero** gainean. Pinudiko sasi artean, oraindik, mahatsa agertzen ohi da.

Ahozkoa:	“Masteiarté”	098
	“Matziarté”	099
	“Masiarté”	099

Mastiebagia (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe.

Ohar ling.: ‘Masti’ + ‘ebagia’. Ik. **Areneko Otaebagia**, **Artikako Iraebagia** eta **Zurebagieta**.

Mastiebagia > Mastiebaia > Mastiebai3a > *Mastiebai3e*

Bokal arteko belare ahostuna galdu da (-g- > ∅) eta -i- bokal itxiaren eta ondoko bokalaren artean epentesia txertatu da hiatoa apurtzeko. Asimilazioz, -i- bokal itxiaren eraginez, -a bokal irekia gradu batean itxi da.

Oharrak: **Itubuzkarnagusi** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:

1910	<i>Mastiebaye, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
------	----------------------------	----------------------------------

Mendiondo (parajea)

Kokapena: Zehaztu gabe.

Oharrak: 1913ko agiri baten arabera, Bilborako errepideak *Mendiondoko* gaztainadia bitan banatzen du eta **Itubizkarnagusiren** eta **Itubizkartxikereren** lurrekin mugan dago; 1944ko GJEko agiriaren arabera, bestalde, **Itubizkarbarri** baserriak, mendebaldetik *Mendiondo* izeneko basoarekin mugatzen du. Ondorioz, seguruenik, paraje hau, **Itubizkarbururantz**, **Planta** inguruan dago.

Idatzizkoa:

1910	<i>Mendiondo, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Mendondogane, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1913	<i>Mendiondo, castañal en</i>	<i>GJE fk:1738 L24;43</i>
1944	<i>Mendiondo gana, argomal</i>	<i>GJE fk:1231 L17;108</i>
1944	<i>Mendiondo, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>
1944	<i>Mendiondo, monte</i>	<i>GJE fk:1231 L17;108</i>

Morteruza (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: Ik. Hiriguneko **Apiotza**.

Oharrak: **Egi**, **Ibiñaga**, **Azeretxo** eta **Beasko** baserriak dauden ingurua da. *Beasko* baserria, *Morteruza* izenez ezagutu izan da XVIII. mendearen erdi aldera arte; 1704ko fogeran, baserri hau, *Morteruza Veazcoa* legez agertzen da⁹⁵². ‘Beasko’ erreferentzialak, ‘beheko’ zentzua duenez, pentsatu behar da leku-izen hau goian aipatutako baserrien inguruari dagokiola.

Morteruza, Bermeoko fundazio agirian aipatzen da; bera da hiribilduaren hiru mugetako bat:

*“Et estos terminos han estos pobladores de Bermejo por nombres de Villa. De Menigo, et de Morteruza et de Vriachiti fasta Bermejo con montes et con fontes, et con entradas, et exidas (...)”*⁹⁵³

952 1704. BFA. Fg.

953 Iturriza Zabala, Juan Ramon (1793), II; 208.

Idatzizkoa:

1236?	<i>Morteruza</i>	<i>BIBL ItJR-II 208</i>
1285	<i>Morteruza, sobre</i>	<i>BIBL ItJR-II 209</i>
1629	<i>Morteraca</i>	<i>BUA 928. Mojонера. 1749 19</i>
1696	<i>Morteruza, barrio de</i>	<i>BEHA A-72/33</i>

Mukulu (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Oharrak: **Itubizkarbarri** baserriaren ekialdean. *Muculu* izen hau, 1682ko urtean, **Josune** baserriari lotuta agertzen da, *Echavarria muculu* izenez azaltzen baita⁹⁵⁴.

Ahozkoa: “*Mukulé*” 096

Idatzizkoa:

1910	<i>Buculis, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Muculu, jaro</i>	<i>GJE fk:1231 L17;108</i>

Mundakatxu (baserria)

Kokapena: Zehaztu gabe.

Ohar ling.: ‘Mundaka’ + -txu. Baserri honi, jabearen izenetik (Francisco de Mundaca) datorkio berea. Asimilazioz, -u- bokal itxiak ondoan dagoen silabako bokal irekia itxi du (-a- > -e-) eta beste aldaera sortu da:

Mundakatxu > *Mundekatxu*

Ahoz, baserri-izen berrietan eta baserri berrien izenetan agertzen den bokal paragogikodun genitibo markarekin ere jaso da.

Oharrak: XIX. mendearen lehen zatian Jose Ormazak (edo Ormaetxeak) eraikia. XIX. mendean zehar, Lartitegi familiaren jabetzakoa izan da baserri hau. 1860. urtera arte, **Mañu** auzoari zegokion, baina urte hartan, *Kantarape* eta **Errematzane** baserriekin batera, **San Migel** auzora bildu zen.

Baserri honek izen desberdinak izan ditu: 1862-87ko agirian agertzen den Francisco Mundakakoaren izenetik datorren *Mundakatxu*, alde batetik, eta *Gurezua* edo *Golusuaga*, baserria dagoen parajearen izen zaharra, bestetik (Ik. **Gorosoaga**).

Gaur ez dago *Mundakatxu* baserriaren aztarna materialik; jausita zegoen 1860rako⁹⁵⁵. Izena bai mantendu dela bera egon izan den parajea: Bilborako errepidearen goiko bihur-gune nagusiaren ingurua da **Mundakatxu**, eta honi dagozkio ahozko adierazpenak.

Ahozkoa: “*Mundakátzu*” 095
 “*Mundekátzune*” 101, 102
 “*Mundékatzu*” 095
 “*Mundékatzune*” 103

Idatzizkoa:

1823	<i>Mundacachu, cas.</i>	<i>BEHA A-77/3-26-VI</i>
1823	<i>Mundacachu, cas.</i>	<i>BUA 5. Riqueza territorial 31</i>
1833	<i>Mundacachu, casa de</i>	<i>BUA 1592. Cuentas 136b</i>
1839	<i>Mundacachu, cas.</i>	<i>BUA 1313/4. Contribución 1</i>
1843	<i>Garusoaga, cas.</i>	<i>BUA 913/2. Actas de concil. 22</i>

954 BUA. AL. 1680-1710; 31b-34b.

955 BUA. 5. Rotul. De calles.

1859	<i>Gurezua, cas.</i>	BUA 5. <i>Nuevo Nomenclator</i>
1859	<i>Gurezua, cas.</i>	BUA 888/18. <i>Mozos</i>
1860	<i>Guresua, cas.</i>	BUA 5. <i>Rotul. de calles</i>
1860	<i>Gurezua, cas.</i>	BUA 5. <i>Rotul. de calles</i>
1862-1887	<i>Burgo, cas.</i>	BUA 1289. <i>Venta de montes</i> 75b
1894	<i>Golosoa, cas.</i>	BAHP.N.BL 7549 897b
1894	<i>Golosoa, cas.</i>	GJE <i>fk:1775 L24;199</i>
1894	<i>Gorosua, cas.</i>	GJE <i>fk:1775 L24;199</i>
1910	<i>Basunaga, cas.</i>	BUA 1032. <i>Fincas rústicas</i>
1910	<i>Besunaga, cas.</i>	BUA 866. <i>Fincas rústicas</i>

Mundakatxu (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (B-1)

Ohar ling.: Lekuaren izena, paraje honetan baserria eraiki zuen jabearen ezizenetik dator (Ik. San Migel auzoko **Mundekatxu** baserria).

Oharrak: Bilborako errepidearen goiko bihurgune nagusiaren ondoko ingurua. Bihurguneari berari ere, *Mundaketxuneko burrie* esaten zaio.

Ahozkoa:	“Mundakátzu”	095
	“Mundekátzune”	101, 102
	“Mundékatzu”	095
	“Mundékatzune”	103
	“Mundekatzuneko búrrie”	101, 103

Idatzizkoa:

1910	<i>Mundacachu, heredad</i>	BUA 1435. <i>Fincas rústicas</i>
1944	<i>Mundecachuena, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1948	<i>Mundacachuena, heredad</i>	GJE <i>fk:1761 L24;123</i>

Naparriturri (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Oharrak: **Etxebarrierrekabeko** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:

1910	<i>Naparrri-iturri, heredad</i>	BUA 866. <i>Fincas rústicas</i>
1923-24	<i>Naparriturri, heredad</i>	BUA 404. <i>Fincas rústicas</i>
1944	<i>Naparriturri, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5

Olegi (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (B-2)

Ohar ling.: ‘Ola’ + ‘(h)egi’. Elkartzean, ondoan gelditu diren bokalek -ae- > -e- egin dute (Ik. Artika auzoan **Artiketxe** edo **Almikerrota**...). Osteen, bokal arteko belare ahostuna galdu egin da (-g- > ∅). Belare ahostuna galdu ostean, ondoan gelditu diren bokalak diptongatu dira, eta -ei > -i bilakatu da.

‘Ola’ + ‘(h)egi’ > *Olaegi* > *Olegi* > *Olei* > *Oli*

Artikuludun aldaera ere jaso da, -i- bokal itxiaren ostean, hiatoa apurtzeko, epentesia duena: *Oleya*.

Oharrak: **Ganeko landako** azpia, Bilborako errepideko bihurgune nagusiaren behealdea. Bertatik doan urari ere, **Etzebarrierrekarainoko** tartean, **Olegiko erreka** esaten zaio. XVIII.ko idatzizkoetan ikus daitekeenez, gaztainadiak ziren ugari paraje honetan.

Ahozkoa: “**Ólei**” 095, 096, 099, 101, 102
 “**Óli**” 150

Idatzizkoa:

1633	<i>Olegui, castañal en</i>	VEKA S.V. C931 6
1645	<i>Olaegui, castañal en el termino de</i>	BFA. Bust 201/94 208
1652	<i>Oleegui, castañal en</i>	BUA 972/1. Escrituras censos 37
1652	<i>Olegui, castañal en</i>	BUA 972/1. Escrituras censos 22
1653	<i>Olegui, castañal en</i>	BUA 972/1. Escrituras censos 22
1677	<i>Olegui, castañal en</i>	BFA. Bust 601/38 3
1720	<i>Olaegui, monte</i>	BIBL SFTB
1730	<i>Oleaga, castañal en</i>	BFA. K. 460/24 10
1736	<i>Oleaga, castañal en el termino de</i>	BEHA A-71/32
1737	<i>Olegui, castañal en</i>	BFA. Bust 623/20 53
1775-1831	<i>Olegui, castañal en</i>	BUA 915. Hipotecas. 1775 3
1775-1831	<i>Oleaga, castañal en</i>	BUA 915. Hipotecas. 1775 17
1882	<i>Olegui, heredad en</i>	GJE fk:1417 L19;202
1896	<i>Olegui, castañal en</i>	GJE fk:1735 L24;34
1896	<i>Olegui, castañal</i>	BAHP.N.BL 7553 1548b
1901	<i>Olegui, monte argomal</i>	BAHP.N.BL 8570 634
1910	<i>Olegi, heredad</i>	BUA 1435. Fincas rústicas
1910	<i>Olegui, heredad</i>	BUA 866. Fincas rústicas
1910	<i>Oley, heredad</i>	BUA 1435. Fincas rústicas
1910	<i>Oley, heredad</i>	BUA 866. Fincas rústicas
1910	<i>Oleya, heredad</i>	BUA 866. Fincas rústicas
1923-24	<i>Olegui, heredad</i>	BUA 404. Fincas rústicas
1923-24	<i>Oleya, heredad</i>	BUA 404. Fincas rústicas
1939	<i>Olegui, heredad llamada</i>	GJE fk:63 L2;13
1940	<i>Olegui, monte castañal llamado</i>	GJE fk:199 L4;87
1944	<i>Olegui, argomal</i>	GJE fk:1231 L17;108
1944	<i>Oleya, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1944	<i>Olegui, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1944	<i>Gonzane-Olegui</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1945	<i>Oleya, castañal sito en el punto de</i>	GJE fk:1310 L18;140

Ormako solo

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Oharrak: **San Migel** ermitaren atzealdean, ermitaren eta **Irukurtzieta** baserriaren artean, bidearen hegoaldeetik.

Ahozkoa: “**Ormakosólo**” 105, 106
 “**Ormakó**” 103

Idatzizkoa:

1910	<i>Ormacua, heredad</i>	BUA 1435. Fincas rústicas
1944	<i>Ormacua, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1951	<i>Ormaeta, heredad</i>	GJE fk:2306 L30;41

Ormako solo

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-4)

Oharrak: **Irukurtzieta** baserriaren ipar-ekialdeetik, Bilborako errepide gainean.

Idatzizkoa:

1910	<i>Ormaco-solo, heredad</i>	BUA 866. Fincas rústicas
1944	<i>Ormacosolo, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1951	<i>Armasolo, heredad</i>	GJE fk:2306 L30;41
1957	<i>Armasolo, heredad</i>	GJE fk:2640 L34;182

Otabaltzaga (gaztainadia)

Kokapena: Zehaztu gabe

Ohar ling.: 'Ota' + 'baltz' + -aga.

Oharrak: **Itubizkar** baserriari lotutako saila.**Idatzizkoa:**

1656	<i>Otalvalzaga, castañal</i>	BFA. K. 3174/6 45
------	------------------------------	-------------------

Ozkirriene (sola)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-4)

Ohar ling.: Ahozkoan izen honek *-i-* bokalaren eta artikuluaeren artean hiatoa apurtzeko epentesia ageri du. Bokal itxiak, asimilazioz, artikulua itxiarazi du (*-a > -e*):Ozkirriane > Oskirriane > *Oskirriene*Oharrak: **Dibion**, **Kurtzieta** baserriaren ekialdean.

Ahozkoa:	“Oskirriene”	101, 102, 150
	“Oskirrienekue”	101

Pagoandia (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe.

Oharrak: **Etxebarrierrekagoiko** baserriari lotutako saila.**Idatzizkoa:**

1896	<i>Pagoandia, monte</i>	BAHP.N.BL 7552 131b
1898	<i>Pago-andia, monte</i>	BAHP.N.BL 81591127
1910	<i>Pago-andia, heredad</i>	BUA 866. Fincas rústicas
1923-24	<i>Pago-andia, heredad</i>	BUA 404. Fincas rústicas
1944	<i>Pago-andia, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5

Planta (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Oharrak: **Itubizkartzikerre** baserriaren buruan, Bilborako errepidearen kontra, ekialdetik.

Ahozkoa:	“Plantá”	095
----------	-----------------	-----

Idatzizkoa:

1910	<i>Planta, heredad</i>	BUA 1435. Fincas rústicas
1923-24	<i>Planta, heredad</i>	BUA 404. Fincas rústicas
1944	<i>Planta, heredad</i>	BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5

Planta (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **Baseroko** behealdean, errekarantz.

Ahozkoa: “*Planté*” 100, 101

Ponpa (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **Ermetxiogoiko** eta **Azeretxo** baserrien artean dagoen zabalgunea. Baserri askotako sailak daude bertan. *Ermetxioko* baserrietara doan bidetik *Ponpara* egiten den bi-degurutzeari, *Ponpako kurtzié* esaten zaio.

Ahozkoa: “*Pónpa*” 095, 097, 098, 099,
101, 102, 105, 150
“*Pònpako kurtzié*” 103

Idatzizkoa:

1835	<i>Pompa, viñedo titulado</i>	<i>BUA 915. Hipotecas. 1775 149b</i>
1860	<i>Pompa, un jaro en</i>	<i>BUA 888/18 1</i>
1901	<i>Pompa, heredad</i>	<i>BAHP.N.BL 8570 633</i>
1903	<i>Pompa, heredad</i>	<i>GJE fk:2117 L28;91</i>
1903	<i>Pompa, viña en</i>	<i>BAHP.N.BL 8575 1203</i>
1910	<i>Pompa, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Pompa, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Pompa, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1923-24	<i>Pompa, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1936	<i>Pompa, heredad</i>	<i>GJE fk:2123 L28;106</i>
1944	<i>Pompa, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Pozondoko soloa

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Oharrak: **San Migel** baserriaren ondoan, bidearen beste aldean.

Ahozkoa: “*Posòndoko solué*” 106

Sagarreta (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Oharrak: **Etxebarrierrekagoiko** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:

1896	<i>Sagarreta, heredad</i>	<i>BAHP.N.BL 7552 131b</i>
1898	<i>Sagarreta, robledal</i>	<i>BAHP.N.BL 8195 1127</i>
1910	<i>Sagarreta, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1923-24	<i>Sagarreta, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Sagarreta, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Sagasti (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: Mitxelenak dioenez, « (...) sagar ‘manzana’ / sagast(u)i ‘manazanal’ (...). Es más probable que el suf. colectivo *-doi*, *-dui* se haya agregado al nombre del fruto provisto ya del sufijo *-tze* usual en los dialectos orientales para designar el árbol.» (Mitxelenak, *FHV*, 1990, 295). Beraz, ‘sagar’ + *-tze* + *-di* > Sagasti. Ik. Hiriguneko **Intxausti** kalea.

Oharrak: **Etxebarrierrekagoiko** baserriaren aurrean.

Ahozkoa: “**Sagásti**” 047

Idatzizkoa:

1896	<i>Sagasti, heredad</i>	<i>BAHP.N.BL 7552 131b</i>
1898	<i>Sagasti, heredad</i>	<i>BAHP.N.BL 8195 1125b</i>
1910	<i>Sagasti, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1923-24	<i>Sagasti, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Sagasti, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Sagastiandia (parajea)

Kokapena: Zehaztu gabe

Ohar ling.:Ik. San Migel auzoko **Sagasti** soloa.

Oharrak: Agiriak *solozarra* izeneko sailaren ondoan ipintzen du (Ik. **Solozarre**). *Solozarre* sail hau, **Ermetxio** baserrien hegoaldean dago, **Almikara** doan andabidearen azpitik.

Idatzizkoa:

1632	<i>Çagastiandia, heredad de</i>	<i>BFA. K. 893/8 51</i>
1632	<i>Sagastiandia, termino de</i>	<i>BFA. K. 893/8 7</i>

Sakone (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Ohar ling.: Kontsonantez amaitutako izenetan gertatzen den moduan, -e paragogikoa ageri du. Disimilazioz, erdiko bokal borobila gradu batean itxi da: Sakon(e) > Sakun(e).

Idatzizko dokumentu bietan artikuludun aldaera jaso da.

Oharrak: **Josune** baserriaren hegoaldean.

Ahozkoa: “**Sakoné**” 097

“**Sakuné**” 095

Idatzizkoa:

1910	<i>Sacona, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Sacona, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

San Migel (ermita)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Oharrak: **San Migel** baserriaren aurrean. 1974ra arte **Almikako Andra Mariako** esku-menekoa⁹⁵⁶, gaur **San Frantziskoko** komentuarien elizbarrutikoa da⁹⁵⁷. Irailaren 29an ospatzen da bertako jaia.

Ermita honek, XIX. mendearen hasierara arte, beste eliza eta ermiten antzera, bere etxea eta lursailak izan zituen (Ik. **San Migel** baserria). Ermita hauek sarritan izaten zuten konponketa beharra. Horrela, 1682an, Elvira Belendizkoak diruak eman zituen *San Migelekoa* eta beste herriko ermita batzuk konpontzeko. 1705ean, eta 1783an ere, konpontze-lanak egin ziren ermita honetan.

956 BEHA. A-079/10; 8.

957 ArrG; 88-89



San Migel ermita.

1082an, Donemiliagari egiten zaion zenbait elizaren dohaintzan aipatzen den *San Migel elizak*, ez du zer ikusirik, ustez, ermita honekin. Hona hemen XI. mendeko aipua:

*“et illa ecclesia San Micaelis arcangeli in portu de Vermelio, in ora maris”*⁹⁵⁸

Alde batetik, itsaso ertzean dagoela adierazten da eta *San Migel* ermita Bermeoko mendialdean dago. Bestetik, esanguratsua da eliza hau *ecclesia* legez aipatua izana eta ez garaiko beste askotan bezala *monasterio* gisa. Garai hartan, *monasterium* izenak, patronato partikularrekoak zirela adierazten zuen; eliza hauek, gehien bat, nekazal eremukoak ziren; bestalde, hiriguneko elizak, haietatik bereiziz, *ecclesia* deitzen ziren⁹⁵⁹. XI. mendeko Bermeoko *San Migel* 'ecclesia' legez agertzen da eta, hortaz, hiriguneko elizaren bat zatekeen, ez nekazal ingurukoa, eta are gutxiago ermita bat.

Seguruenik, San Migel ermita da auzoari San Migel izena eman diona. Hortaz, ermitaren aipamen goiztiarrena 1632koa izanda ere, auzoa, San Migel izenaz 1618an aipatzen denez, urte horretan, behintzat, ermita hantxe zegoela pentsatu behar da.

Ermita honetako kanpandegian, hilarri baten aztarnak ageri dira.

Ahozkoa: **“Samigeleko ermitzié”** 150, 156, 166

Idatzizkoa:

1632	<i>San Miguel, hermita de</i>	<i>BFA. K. 893/8 26b</i>
1644	<i>San Miguel, ermita de</i>	<i>BFA. Bust 200/295 126</i>
1682	<i>San Miguel, ermita de</i>	<i>BUA AL. 1680-1710 31b-34b</i>
1682	<i>San Miguel, hermita de</i>	<i>MAHN C.C. 4228 35</i>
1701	<i>San Miguel, hermita de</i>	<i>BUA AL. 1680-1710 235b-237b</i>
1702	<i>San Miguel, hermita de</i>	<i>BUA AL. 1680-1710 275-281b</i>
1704	<i>San Miguel, hermitaño de</i>	<i>BUA AL. 1680-1710 345-348b</i>
1705	<i>San Miguel, hermita de</i>	<i>BUA 1560. Libro de cuentas 86</i>

958 1082. Donemiliaga. 247. Libano, Angeles (1995-1999), /H-O; 468. Caro Baroja, Julio (1981); 288. Irigoyen, A. (1986); 12-13/17.

959 Iturriza Zabala, Juan Ramon (1793), I; 90, 97.

1723	<i>San Miguel, ermita de</i>	BUA 915. Ermita de S. Andres 1
1763-1846	<i>San Miguel, ermita de</i>	BUA 39/1. Enajen. y conc. 1
1783	<i>Samiguel, ermita de</i>	BUA 842. Libr. y recibos 87
1799	<i>San Miguel, casa ermita de</i>	BFA. Bust 85/5
1804	<i>San Miguel, hermita de</i>	BEHA A-700/10-2
1804	<i>San Miguel, hermita de</i>	BEHA A-700/10-2
1827	<i>San Miguel, hermita y casa de</i>	BEHA A-79/10 3
1837	<i>San Miguel, hermita de</i>	BEHA A-758/2-53-0
1844	<i>San Miguel, ermita de</i>	BIBL YrJA 93-95
1887	<i>San Miguel, ermita de</i>	BEHA A-81/14-1 1
1902	<i>San Miguel, ermita de</i>	BAHP.N.BL 8572 124
1928	<i>San Miguel, ermita de</i>	BIBL ZbA1 339
1952	<i>San Miguel, ermita de</i>	BEHA A-79/10 8
1987	<i>San Miguel, ermita de</i>	BIBL ArrG 88,89

San Migel (baserria)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Ohar ling.: Baserri honen izena kontsonantez amaitzen denetakoa denez, -e paragogikoa erakus dezake. Bokal arteko belare ahostuna ere gal dezake (-g- > ø).

Samigel > Samigele > Samiele

Oharrak: XIX. mendearen hasierara arte, **San Migel** ermitaren etxea izan zen, ez baserria. Elizek eta ermitak beren ondoan elizaren jabetzako etxea izaten zuten, hala zeukan **Talako Andra Mariak, Santa Eufemiak, San Andreseko** ermitak, etab. 1830 inguruan, etxea, partikularrek erosiz (Manuel Antonio Gazmuri), baserri bihurtu zen. *San Migel* etxe hau, garai hartan ez zegoen gaurkoa dagoen lekuan: 1876 ingurura arte, ermitaren ondoan egon zen, honen iparraldeko ormarean kontra eta mendebaldera begira, gaurko *San Migel* baserriaren aurrez aurre. Eraikuntzaren egoera eta orientazio txarragatik, bere aurreko lur sailean, baserri berria eraikitzea erabaki zen; gaur dagoen lekuan. Honela esaten du agiriak:

“Heredad con trozo de viña al oeste de la caseria derribada y ermita (hoy sobre esta heredad se halla construida la casa ‘San Miguel’); (...) Norte: camino carril de la barriada; Este: camino carril de la ermita)(...) En atencion al estado ruinoso del edificio descrito al principio y su mala orientacion, se derribó la casa en su totalidad y con sus restos y otros nuevos materiales se edificó otro nuevo edificio tambien de labranza que se emplazó en la heredad frente a la casa contigua” ⁹⁶⁰

Gazmuri-Asteinzabala familiakoen jabetzako izan da baserri hau.

Ahozkoa:	“Samigél”	103
	“Samigelé”	042, 101, 102, 150
	“Samielé”	101

Idatzizkoa:

1761	<i>San Miguel, casa nueva llamada</i>	BAHP.N.RFA 4300 287
1764	<i>Sn Miguel, casa hermita de</i>	BEHA A-81/14-19 77
1791	<i>San Miguel, cas.</i>	BEHA A-78/4-1 1-1b
1796	<i>San Miguel, habitación de la hermita de</i>	BFA. Fg.
1821	<i>San Miguel, casa</i>	BUA 1587. Cuentas de fábrica
1825	<i>San Miguel, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1827	<i>San Miguel, hermita y casa de</i>	BEHA A-79/10 3
1832	<i>San Miguel, cas.</i>	BFA. Bust 654/1
1835	<i>San Miguel, cas.</i>	BEHA A-78/4-1

1847-74	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BUA 5</i>
1850	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BEHA A-78/4-1</i>
1854	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BUA 946. Ced. vec.</i>
1859	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BUA 888/18. Mozos</i>
1860	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BUA 5. Rotul. de calles</i>
1876	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>GJE fk:1016 L14;73</i>
1902	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BAHP.N.BL 8572 124</i>
1922	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BFA. E. KZ. C/2</i>
1934	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BFA. E. KZ. C/76</i>
1938	<i>San Miguel, cas.</i>	<i>BUA 1685. Fich. sanit.</i>

San Migeleko zelaia

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Oharrak: **San Migel ermitaren** iparraldean, bidearen beste aldean.

Ahozkoa: “*Samieleko selaizé*” 105, 150
 “*Samigeleko selaizé*” 106

Sanmigeleta (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: ‘San Migel’ + -eta. Zenbait kasutan, -a bukaeradun izenetan, -eta > -ata bilakatu da. Kasu honetan, oinarria kontsonantez amaitutakoa izan arren, berdin jokutzen du. Ik. San Migel auzoko **Makatzeta**.

Oharrak: **Intxausti** baserriaren ekialdean, **San Migel ermitaren** behetik.

Ahozkoa: “*Samigélata*” 103, 106

Idatzizkoa:

1910	<i>Sanmigeleta, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1944	<i>San Migeleta, heredad</i>	<i>GJE fk:1025 L14;95</i>

Sanmigelpa (saila)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Ohar ling.: Ik. San Migeleko **San Migel** (baserria).

Oharrak: **San Migel ermitaren** iparraldean, **Etxetxubarr**i gainean.

Ahozkoa: “*Samigélpe*” 109
 “*Samiélpie*” 110

Idatzizkoa:

1923	<i>San Miguelpe, terreno</i>	<i>GJE fk:780 L11;106</i>
1923-24	<i>San Miguelpe, robledal</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>San Miguelpe, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Santunatxe (basoa eta erreka)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Ohar ling.: ‘Santu’ + -an + ‘(h)atx’. Kontsonantez amaitutako izenetan gertatzen den moduan -e paragogikoa erakusten du. Lehenengo osagaiak genitibo marka du (beti agertzen ez dena), eta artikulua, asimilazioz, gradu bat itxi da galdu aurretik (-a- > -e- > Ø):

Santuanatxe > Santuenatxe > Santunatxe

Oharrak: **Urubi** errekaen goi-ibilguan, **Lamiñerreka** gainean. Goitik datorren erreka-toari ere *Santunatzxe* esaten zaio. *Santunatzxen* harrobiak ustiatzen ziren garai batean; horren lekuko **Argiñiturri**, inguruko leku-izena.

Ahozkoa: “*Santunatzé*” 095, 096, 099, 101, 103
 “*Sántunatzè*” 101, 148

Idatzizkoa:

1895	<i>Santuenache, argomero</i>	<i>BAHP.N.BL 7550 769</i>
1897	<i>Santuenache, argomero</i>	<i>BAHP.N.BL 8183 1523b</i>
1910	<i>Santuache, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1935	<i>Santunache, argomal</i>	<i>GJE fk:1923 L26;74</i>
1935	<i>Santunache, arroyo</i>	<i>GJE fk:1923 L26;74</i>
1944	<i>Santuache, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>
1944	<i>Santuache, termino de</i>	<i>GJE fk:1025 L14;95</i>
1944	<i>Santuanache, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Sapotxune (sola)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: Leku honek izen bi hartzen ditu hiztunen arabera. Ez dago esaterik zein den eratorria.

Oharrak: **Etxebarrierrekaren** ertzean, **Trinkone** eta **Intxaustipeko** troken artean.

Ahozkoa: “*Sápotzune*” 101
 “*Sápitzune*” 111, 150

Sestotxu / Atetxu (sola)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: Leku honek izen bi hartzen ditu erabiltzaileen arabera.

Oharrak: **Beasko** baserriaren ipar-ekialdean.

Ahozkoa: “*Atétzu*” 099
 “*Sestótzu*” 101

Soloandi

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **Torre** baserriaren hegoaldean, **Almikarako** andabidearen behetik.

Ahozkoa: “*Soloáñdi*” 102, 103

Solozarre (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: ‘Solo’ + ‘za(h)ar’. Kontsonantez amaitzen denez, -e paragogikoa darama, gaur egun zabaldua dagoen joerari jarraituta.

Oharrak: **Ermexiogoiko** baserriaren hegoaldean, **Almikarako** andabidearen behetik. Ez da segurua gaur *Solozarre* izenaz ezagutzen dena idatzizkoei egokitzen zaienik, azken hauek oso zaharrak baitira, eta ez baita agiri horretatik kanpo beste inon aurkitu.

Torre baserriko
armarria

Ahozkoa:	“Solosarré”	103
	“Solosárre”	105
	“Solósarrè”	101

Idatzizkoa:

1632	<i>Solocarra, heredad</i>	<i>BFA. K. 893/8 7</i>
1632	<i>Solosarra, heredad</i>	<i>BFA. K. 893/8 42</i>
1632	<i>Solosarreta, heredad</i>	<i>BFA. K. 893/8 61</i>

Tontorre (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Ohar ling.: Kontsonantez amaituriko izenek erakusten duten moduan, izen honek -e paragogikoa darama.

Oharrak: **Josune** baserriaren buruan, bere hego-mendebaldean.

Ahozkoa:	“Tontorré”	097
----------	-------------------	-----

Torre (baserria)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Ohar ling.: Baserri honek izen bi izan ditu nagusiki: *Gastañaga torrea* eta *Aldauria torrea*. Urteak aurrera joan ahala, *Torre* osagaia mantendu izan da, sarritan, huts-hutsean ageri izan delarik. Gaur egun horrela esaten zaio.Azkueren arabera, ‘*alauria*’ hitzak, herriaren inguruan, kanpoko aldean dagoena adierazten du. Mitxelena ere esaten du: «Leiz. *aldiriak* ‘las proximidades’ de **aldairi*, (...); Oih. Etx’iri ‘cercanias de la casa’ de **etxa* (o *etxe*) iri, etc.» (Mitzelena, *FHV*, 1990, 116).

Oharrak: Auzoko baserri historikoa. Dorretxe legez agertzen da dokumentazioan, eta bere jatorrizko izena *Gaztañagako torrea* da. Baserri honek, armarría erakusten du bere fatxadan; honela deskribatzen du Zabalak⁹⁶¹:

“cortado; en el 1º media luna acompañada de un roel, y en el 2º banda con cruz llana en jefe y flor de lis en punta, con un roel.”

Martin Ruiz Arteagakoaren jabetzakoa XVII. mendearen hasieran; Urza-Arteaga familia-koa, XVII. mendean, **Egi** baserriarekin batera. 1677an, Francisco Urzakoa, Maria Concepcion Elexpurukoarekin ezkontzean, *Egi* eta *Torre* baserriak hartu zituzten Franciscoren gurasoengandik, eta **San Pelaio** auzoko **Ardantz**a baserria, Maria Concepcionen gurasoengandik. XVIII. mendean, Renteria familiakoen jabetzan agertzen da; eta XIX. mendean, Juan Bautista Anituakoa, Trifona Renteriakoen senarraren jabetzakoa izan zen. Anitua, herriko alde liberalekoa izanik, karlistek *Egi* eta *Torre* baserriak bahitu egin zizkioten, Don Carlosen 1836ko uztailaren 30ko errege agindua jarraituz. XX. mendearen hasieran, azkenik, Matias Galarzaren jabetzan agertzen da.

Ahozkoa: **“Torré”** 101, 102, 103, 105, 109, 150

Idatzizkoa:

1670	<i>Gastañaga Hermecho</i>	<i>BFA. K. 828/1 3b,14,37b</i>
1685	<i>Gastañaga, Torre de</i>	<i>BFA. Bust 180/84 1b</i>
1701	<i>Gastañaga, torre de</i>	<i>BUA AL. 1680-1710 235b-237b</i>
1702	<i>Gastañaga, ttorre de</i>	<i>BUA AL. 1680-1710 275-281b</i>
1704	<i>Gastanaga, Torre</i>	<i>BFA. Fg.</i>
1745-46	<i>Torrea, cas.</i>	<i>BFA. Fg.</i>
1764	<i>Torrea, caseria</i>	<i>BEHA A-81/14-19 77</i>
1775-1831	<i>Castañaga Torre, casa</i>	<i>BUA 915. Hipotecas. 1775 75b, 76</i>
1791	<i>Torria, cas.</i>	<i>BEHA A-78/4-1 1-1b</i>
1792	<i>Aldaurias, Torre de</i>	<i>BEHA A-78/4-1 6</i>
1799	<i>Thorrea, cas.</i>	<i>BFA. K. 460/24 46b</i>
1802	<i>Gastañaga, Torre</i>	<i>BFA. Bust 523/4 8</i>
1811	<i>Torre, cas.</i>	<i>BFA. K. 222/9 28</i>
1825	<i>Aldaurias, Torrea de</i>	<i>BEHA A-78/4-1</i>
1827	<i>Torrea, cas.</i>	<i>BEHA A-79/10 3</i>
1836	<i>Torre, cas.</i>	<i>BUA 37/3. Gubernativo 67</i>
1850	<i>Aldauria, Torre de</i>	<i>BEHA A-78/4-1</i>
1901	<i>Torre, cas.</i>	<i>BAHP.N.BL 8570 632</i>
1910	<i>Torre, cas.</i>	<i>BUA 1032. Fincas rústicas</i>
1922	<i>Torre, cas.</i>	<i>BFA. E. KZ. C/2</i>
1924	<i>Torre, cas.</i>	<i>GJE fk:1074 L15;30</i>
1928	<i>Anitua, [torre] la de</i>	<i>BIBL ZbA1 203</i>

Torrepe (saila)

Kokapena: San Migel; IV. mapa (D-3)

Oharrak: **Torre** baserriaren behealdean, bere iparraldetik, Bilborako errepidearen gainean.

Ahozkoa: **“Torrépe”** 110

Idatzizkoa:

1923	<i>Torrepe, terreno</i>	<i>GJE fk:780 L11;106</i>
1944	<i>Torrepe, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

961 Zabala, Angel (1928), I; 169.

Trinkone (erreka-zuloa)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Ohar ling.: Ahozko aldaeretan, *-i*- bokal itxiak, asimilazioz, ondoko silabako bokala itxi du:*Trinkone* > *Trinkune**Beaskoperi* dagokionez, Ik. San Migel auzoko **Beasko** baserria.Oharrak: **Beasko** baserritik **EtxebARRIEREKARA** jaisten den erreka-zuloa. XVIII. mendearen hasierako Udal akta liburuetan, *Trincon* izeneko baserri bat agertzen da, ezin izan dena zehaztu non zegoen⁹⁶². Ez du ematen erreka-zulo honekin zer ikusirik duenik.

Ahozkoa:	“Trinkuné”	098, 100, 101, 109
	“Trínkune”	105
	“Bieskópe”	099, 101, 109
	“Bieskópie”	098

Idatzizkoa:

1882	<i>Trincones-besacope, heredad</i>	<i>GJE fk:1417 L19;202</i>
1901	<i>Trincone, heredad</i>	<i>BAHP.N.BL 8570 633</i>
1944	<i>Trincone-beacope, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>
1944	<i>Trincone, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Txaboleta (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (B-2)

Ohar ling.: ‘Txabola’ + -eta. -a bokalez amaitutako leku-izenetan -eta leku-atzizkia, -eta > -ta bihurtzen da. Auzo honetako **Iruerreketa** edo Araneko **Boleta** izenetan gertatzen den bezala:‘Txabola’ + -eta > *Tzabolata*Oharrak: **Ganeko landa** azpian, **Olegiko erreka**ren sorburuan.

Ahozkoa:	“Tzabólata”	095, 097, 101
	“Tzabóleta”	101

Txaliñene (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **EtxebARRIEREKA** baserrien mendebaldean.

Ahozkoa:	“Tzáliñene”	101, 150
	“Tzálene”	111

Idatzizkoa:

1923-24	<i>Chaliñena, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Chaliñena, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Txapoane (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **Ermexio** baserrien hegoaldean, **Almikarako** andabidearen behetik.

Ahozkoa: **“Tzapoáne”** 103

Idatzizkoa:
1944 *Chaparrona, heredad* BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5

Txintxurrutxu (beresia)

Kokapena: Zehaztu gabe

Oharrak: **Ibiñaga** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:
1903 *Chichurruchu, monte jaral* BAH.P.N.BL 8575 1203b
1903 *Chinchurruchu, jaral* GJE fk:2117 L28;91
1944 *Chindurruchu, Chindurrechu, heredad* BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5

Txorroa (saila)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Ohar ling.: Artikulua hartzen dutenatariko izena da. Artikulu horrek aurreko bokalean eragina du, eta -o > -u bilakatu da disimilazioz:

Txorroa > Txorrua

Oharrak: **Itubizkarbarri** baserriaren ondoan.

Ahozkoa: **“Tzorróa”** 096

“Tzorrúa” 095

“Tzorroko solué” 096

Idatzizkoa:
1632 *Choroa, heredad* BFA. K. 893/8 26
1632 *Chorroa, termino que llaman de* BFA. K. 893/8 32b
1910 *Chorroa, heredad* BUA 1435. Fincas rústicas
1944 *Chorroa, heredad* BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5
1944 *Chorua, heredad* GJE fk:1231 L17;108

Txumelatzune (erreka-zuloa)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-3)

Oharrak: **Intxausti** baserriaren behetik, bere hego-ekialdetik **Etxebarrierrekara** jaisten den erreka-zuloa.

Ahozkoa: **“Tzumélatzune”** 101, 105

“Tzumélatzu” 108

Txutxurrukueta (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Oharrak: **Beasko** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:
1910 *Chuchurrucueta, heredad* BUA 1435. Fincas rústicas
1944 *Chuchurrucueta, heredad* BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5

Urdaillape (parajea)

Kokapena: San Migel; VII. mapa (A-2)

Ohar ling.: 'Urdailla' + -pe. Leku-izen honek albokari palatala ageri du, aurreko *-i-* bokal palatalak eragindakoa. Bokal palatal horrek, asimilazioz, ondoko bokal irekia gradu batez itxi du.

Urdaillape > Urdaillepe

Diptongoa monoptongatu da, eta *-ai-* > *-i-* bihurtu da:

Urdaillepe > Urdillepe

Ahoz jaso den aldaeretako batek, bukaeran, *-e* bokalaren ordeaz, *-u* erakusten du.

Urdaillepe > Urdailupe

Oharrak: **Josune** baserriaren mendebaldean, Bilborako errepidearen behetik.

Ahozkoa: **“Urdillépe”** 095, 096, 098, 101, 148
 “Urdillúpe” 101

Idatzizkoa:

1896	<i>Urdaillape, termino de</i>	<i>GJE fk:1735 L24;34</i>
1896	<i>Urdaillape, heredad en</i>	<i>BAHP.N.BL 7553 1550</i>
1910	<i>Urdillepe, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Urdillepe, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Urdallaspe, monte</i>	<i>GJE fk:1231 L17;108</i>
1944	<i>Urdillepe, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>
1944	<i>Urdaillepe, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Usape (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Ohar ling.: 'Uso' + -pe > *Usape*. Silaba biko hitzetan bukaerako *-o* > *-a* bilakatzen da (Mitzelena, *FHV*, 1990, 126).

Oharrak: **Etxebarrierrekabeko** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:

1910	<i>Usape, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1923-24	<i>Usape, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Usape, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Urtxipiaga (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Ohar ling.: 'Ur' + 'txipi' + -aga. Leku-izena desitxuratuta ageri da. Bigarren osagaiaren baliokidea den 'txiki' ere jaso izan da aldaera batean: *Urchiquiaga*.

-aga leku-atzizkiaren ordeaz, *-eta* leku-atzizkia ere jaso izan da: *Urchupieta* eta *Uchupieta*.

Oharrak: Sail hau **Itubizkartzikerre**, **Beasko** eta **Azeretxo** baserriei lotuta agertzen da agiritan. *Urtxipiaga* izenari lotuta azaltzen den **Iturralde**, **Itubizkarbarri** baserriaren inguruan dago.

Idatzizkoa:

1896	<i>Yturrialde-Ychupechaga</i>	<i>GJE fk:1735 L24;34</i>
1910	<i>Ychipiaga, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Urchupieta, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Urchiquiaga, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Chupiaia, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>

1913	<i>Urlumpiaga, Urlenpeaga, monte</i>	<i>GJE fk:1739 L24;45</i>
1944	<i>Uchupiaga, Iturralde-Ichupiaga, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>
1944	<i>Uchupieta, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

Zubizarraga (saila)

Kokapena: Zehaztu gabe

Ohar ling.: 'Zubi' + 'za(h)ar' + -aga > *Zubizarraga*. Idatziz jaso den bigarren aldaeran -aga leku-atzizkiaduna dela ematen du; hau da, bokal arteko belare ahostuna galduta duena (-g -> Ø).

Zubizarraga > Zubizarra

Oharrak: **Beasko** baserriari lotutako saila.

Idatzizkoa:

1910	<i>Zuluzarraga, heredad</i>	<i>BUA 1435. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Zubi-zarra, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>